



**ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIAREN  
KARATULA: PROZEDURA IREKI BIDEZ “TPE OSAKIDETZA BANATZEKO BULEGO  
TEKNIKOA”**

**1. KONTRATUAREN HELBURUA**

- 1.1. Bete beharreko premiak: Preskripzio Teknikoen Agirian adierazitakoak
- 1.2. Espedienteari erantsitako kontratu-izaera duten dokumentuak. Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Agiria.

**2. KONTRATAZIOA: IZENPE, S.A.**

**3. ESPEDIENTE ZENBAKIA: 007-2008**

**4. ESLEITZEKO MODUA: prozedura irekia.**

**5. ALDAGAIEN ONARPENA: ez dago.**

**6. AURREKONTUA: gehienez 200.000 euro.**

**7. GAUZATZE EPEA: Kontratua formalizatzen den biharamunetik hasiko da eta 2009ko abenduaren 31ra arte iraungo du.**

**8. ALDAGAIEN ONARPENA: ez da kontuan eduki**

**9. KONTRATUA LUZATZEA**

Ez da kontuan eduki.

**10. AZPIKONTRATAZIOA.**

Azpikontratazio-ehunekoa espresuki ez da kontuan eduki.

**11. ZERBITZUEN BERME EPEA ETA HARRERA EPEAK.**

Zerbitzuak mailaka jasoko dira, preskripzio teknikoan agiriko 2. puntuan zehaztutakoa jarraituta. Jasotako unetik hilabete bateko berme-epea exijitzen da.

**12. DOKUMENTAZIOA LOR DAITEKEEN TOKIA:**

Helbidea	IZENPE, S.A. Tomas de Zumárraga Dohatsua kalea 71, 1.a, 01008 Vitoria-Gasteiz
Web	<a href="mailto:info@IZENPE.com">info@IZENPE.com</a>



Telefonoa	945 017 490
Fax	945 016 137

- Posta elektronikoko bidez jasotzeko (ahal izanez gero harrera telematikoa)  
Dokumentazioa, elektronikoki sinatua, honako helbide elektronikoko honetan jaso: info@IZENPE.com.
- Posta arrunt bidez jasotzeko.  
IZENPE, S.A. Tomas de Zumárraga Dohatsua kalea 71, 1.a, 01008 Vitoria-Gasteiz
- FAX bidez jasotzeko.  
945 016 137 FAX zenbakia, posta bidez dokumentazioa igorri dela jakinarazteko.

**13. ESLEIPENA:**

**13.1. GARRANTZI HANDIENETIK TXIKIENERAKO ORDENAN ESLEITZEKO IRIZPIDE BERAZIAK ETA EUREN ONARPENA:**

Esleitzeko irizpideak, emandako datuak alderatuta eta ondoren aipatuko ditugun parametroak kontuan hartuta ebaluatuko dira:

- Taldearen osaketa teknikoa (%30)
- Proposatutako kostua (%30)
- Proposatutako garapen-metodologia (%30)
- Zerbitzuaren eskaintza-bermea. (%10)

**14. LAN PROGRAMA:** Preskripzio Teknikoen Agirian jasotakoa, 1. eta 2. puntuak.

**15. PUBLIZITATE GASTUEN ZENBATEKOA:** Esleipendunak ordaindu beharko ditu.

**16. IRIZPIDE OBJEKTIBOEN ARABERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:**  
Eskaintza teknikoari dagokionean, preskripzio teknikoaren agirian adierazitakoa aurkeztu beharko dute.

**17. ZIGORRAK.**



Preskripzio teknikoen agirian ez dira ezartzen.

**18. KONTRATUAREN HELBURU DIREN ZERBITZUAK ENTREGATU EDO ESKAINTZEKO LEKUA.**

Preskripzio Teknikoen Agiriko 4. puntuaren arabera, IZENPE S.A. enpresan edo lan bakoitzerako Proiektu Buruak adierazten duen tokian.

**19. KONTRATUAREN HELBURUA EGIAZTATZEKO HARRERAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA.**

IZENPEK, bere Proiektuko Arduradunaren bitartez, igorritako lanak IZENPEk berak emandakoekin bat datozela egiaztatuko du.

**20. KONTRATISTAK KONTRATUAREN EDUKIA SEKRETUAN GORDETZEKO OBLIGAZIOA.**

Preskripzio Teknikoen Agiriaren 8. puntuaren eta agiri honen 22. puntuaren arabera.



## **PROZEDURA IREKI BIDEZ “TPE OSAKIDETZA BANATZEKO BULEGO TEKNIKOA” IZENKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA.**

---

### **I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK**

#### **1. KONTRATUAREN HELBURUA**

Kontratu honen helburu da, preskripzio teknikoen agirian (2., 3. eta 4. puntuak) deskribatutako esparruetan TPE Osakidetza txartela Izenpe S.A.ren bitartez banatzeko modua kudeatuko duen bulego teknikoa sortzea. Zerbitzua, kontratuaren zati diren agiri honetan eta preskripzio teknikoetan agertzen diren baldintzetara egokituko da.

##### **1. ARAU ERREGULATZAILEAK.**

Kontratua honako hauek arautuko dute:

- 1.1. Kontratuan dagoen Agiri honen barne hartutako klausulek.
- 1.2. Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak.
- 1.3. Kontratuen prestatze, gauzatzeko, obligazio eta jarraipenei aplikatu dakizkiekeen araudi zibila eta merkataritzakoa.
- 1.4. HAKLren Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 2/2000 Errege Dekretua.
- 1.5. Estatuan nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzen duen bestelako edozein xedapen, aipatutako Erkidegoaren eremuan aplikagarri suertatzen bada.

##### **2. KONTRATUAREN AURREKONTUA**

- 2.1. Kontratu honen helburu diren zerbitzua eskaintzeko IZENPEk egindako aurrekontuaren zenbatekoa, Agiriko 6. puntuan agertzen da.

##### **3. PREZIOAK BERRIKUSTEA**

- 3.1. Kontratua, kontratistaren arrisku eta kontura beteko da.

##### **4. KONTRATUAREN IRAUPENA**

Kontratua gauzatzeko epea, preskripzio teknikoen agiriaren 7. eta 10. puntuetan ezarriko da, legeak ezarritako baldintza eta mugekin.



## 5. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu honen esleipena, HSKLren 141. eta 145. artikuluen artean araututako aurkibideko 4. puntuan ezarritakoaren arabeko prozedura bidez egingo da.

## II. PROPOSAMENAK ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

### 6. ARAU OROKORRAK

- 6.1. Jarduteko erabateko ahalmena duten pertsona fisiko edo juridikoak, espainiarrak nahiz atzerritarrak, aurkeztu ahal izango dira kontratuaren xede den lehiaketan, aurrerago zehazten den moduan, baldin eta haien helburuak edo jarduerak kontratuaren xedearekin zerikusi zuzena badu, dagozkien Estatutuak edo fundazio-arauak kontuan hartuta, eta kontratua behar bezala betetzeko beharrezko elementu pertsonalak eta materialak izango dituen antolaketa eta kaudimena dituztela egiaztatzen badute.
- 6.2. Proposamenak aurkezteak, lehiatzaileak agiri honetan jasotako klausulak bere osotasunean eta inolako salbuespenik gabe onartzea dakar berekin, bertako aurkibideko zehaztapenen eta gainerako kontratu-dokumentuetan bildutakoen arabera. Horrez gain, aurkeztutako datu guztien zehaztasunari eta lehiaketaren xede diren zerbitzuak kontratatzeko eskatutako baldintza guztiak betetzeari buruzko aitorten erantzulea ere eskatzen du.

Eskaintzan ezingo dute parte hartu, kontratazio honen zehaztapen teknikoak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia liberako murriztapenak eragin baditzake edo gainerako enpresa eskaintzaileekiko tratu abantailatsua suposa badezake.

Halaber, eskaintzaileek ezingo dute aldi baterako enpresa-elkarte gisa proposamenik izenpetu enpresa horiek euren aldetik beste proposamena egin badute. Halaber ezingo dute aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu. Arau horiek hautsiz gero, eskaintzaileak izenpetutako proposamen guztiak atzera botako dira.

- 6.3. **Posta elektronikoko bidez bidaliko da** azalean agertzen den helbidera. Komunikatzeko modu horrek, igorri eta jaso izanaren, daten eta komunikazioen eduki osoaren frogak daudenean baino ez du balioko, eta betiere igorlea eta hartzailea argi eta garbi identifikatuak badaude. Hala egingo da dokumentazioa elektronikoki sinatuta eta onartutako ziurtagiri batekin igortzen bada.

Eskaintza honetan parte hartzeko, eskaintza-iragarkian ezarritako epearen barruan, proposamengileak agiri honen azaleko 15. puntuan adierazten diren bulegoetan fitxategi bat aurkeztu beharko du. Bertan, argi eta garbi honako datu hauek eman beharko ditu:

- Zein kontratutarako lehiatzen den.
- Enpresaren edo proposatzailearen izena.



- Proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta proposamenaren xedea.

Hori guztia modu irakurterazean idatzita. Fitxategia (edo fitxategiak), derrigorrez, eskaintzaileak edo hau ordezkatzeko duen pertsonak sinatu behar du. Posta elektronikoz aurkeztuz gero, onartutako ziurtagiri baten bidez, sinadura elektronikoz izenpetutako dokumentuak onartzen dira.

### **Eskaintzaren edukia:**

#### **1. GUTUNAZALA-**

#### **6.4. KONTRATATZEKO AHALMENA:**

Ondoren aipatuko ditugun gaien inguruko dokumentu hauek jasoko ditu:

##### **1- Jarduteko ahalmena:**

1- Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatutako enpresaburuak:- Pertsona fisiko eta/edo juridikoaren jarduteko ahalmena

##### **6.4.1.**

Kontratisten Erregistro Ofizialari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretu bidez erregulatutako Kontratisten Erregistro Ofizialean izena eman duten eskaintzaileek, Erregistroaz arduratzen den abokatuak luzatutako indarreko ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute; horrela ez dituzte agiri honetako 6.5.1., 6.5.2., 6.5.3. eta 6.5.5. puntuetan (sailkapenari dagokionean) adierazitako dokumentuak eta baldintzak aurkezteko eta frogatzeko beharrik izango.

2- Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuak ez dauden eskaintzaileak. Pertsona fisiko eta/edo juridikoak jarduteko gaitasuna:

**6.4.2.** Norberaren izenean edo ahaldun gisa, proposamen hau aurkeztuko duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala.

**6.4.3.** Eskaintzailea pertsona juridikoa denean, Merkataritza Erregistroan edo dagokion Erregistro Ofizialean izena eman duenaren frogagiria, aplikatu behar den legeriaren arabera baldintza hori exijitu beharko litzatekeenean. (Erregistro-egoeraren kopia soila).  
Hala ez denean, bere jarduera erregulatzen duten arauak jasoko litzateketen sormen-egintza, estatutu, eraketa edo aldaketako dokumentua edo eskritura.

**6.4.4.** Eskaintzaileak ez duenean bere izenean jarduten edo pertsona juridiko baten izenean diharduenean, kasu horretarako ahalordetze nahikoa.

**6.4.5.** HSKLren 49. artikuluan zerrendatzen diren kontratatze debekuetan barne hartuta ez izatearen ziurtagiria.



Aipatutako ziurtagiria, lekukotasun judizialaren edo administrazio-ziurtagiriaren bidez egin ahal izango du. Horren ordeztu aitorpen erantzulea egin ahal izango du (esleipendun suertatzen denak administrazio-ziurtagiria edo lekukotasun judiziala emango du).

**6.4.6. Zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharre** dagokienean, Ogasunek (Estatuko Ogasuna eta Foru Ogasunak) kasurako luzatutako administrazio-ziurtagiriaren bitartez, HAKLEOko 15. artikuluan aurreikusitako garrantzia eta modua kontuan hartuta, obligazio horien ordainketak egunean dituztela egiazta dezakete.

Indarrean dauden xedapenek ezarritako Zerga eta Gizarte Segurantzarekin lotutako obligazioak beteak dituela adierazten duen Aitorpen Arduratsua aurkeztu ahal izango du.

Hori kaltetu gabe, zergekin eta Gizarte Segurantzarekin lotutako obligazioak bete dituela egiaztatzeko, ondorengo paragrafoan adierazten den moduan egingo da eta esleipenaren aurretik esleipendun izango direnei exijituko zaie.

**Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.** Bertan alta emanda dagoela, kontratuaren helburuari dagokion epigrafean aurkeztu beharko da . Hori hala egingo da, zerga hau duten jardueretan aritzen badira. Bestela, jarduerak gauzatzen dituzten lurralde-esparruan aritzeko ahalmena emango dieten proposamenak aurkezteko datan gauzatzen ari diren jarduerekin lotutakoa, edo azken ordainagiria aurkeztu beharko dute. Azken horrekin batera, Zerga horren matrikulan baja ez eman izana adierazten duen aitorpen arduratsua aurkeztu beharko dute.

## **2- Ahalmen Tekniko Profesionala:**

Enpresa esleipendunak, kontratatutako zerbitzuak behar bezala gauzatzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak eskaintzeko konpromisoa hartzen du.

Ahalmen tekniko eta profesionalaren balioespena, ondorengo atalak eta balioespenak (1. eta 2. puntuak) kontuan izanda egingo da.

Enpresa batek baldintza horietako bakoitzaren %50 gainditzen ez badu ez da bere eskaintza teknikoa irakurriko.

1.- Enpresaren balioespen generikoa: Erakundeak, zerbitzua behar bezala eskaintzea bermatzeko eta kontratuaren une jakinetan lan-karga handitu ahal izateko behar bezalako ekipa, tresna eta instalazioak izan beharko ditu. Fidagarritasun teknikoa eta profesionala balioztatzen, euren ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna hartuko dituzte kontuan. Hori guztia honela frogatuko da:

a- Enpresa-aurkezpena eta eskatutako zerbitzura egokitzea

b- Proiektuari lotuta baliabideak, ezarpena eta enpresa-egitura.

c- Bulego teknikoko taldea osatuko duten langileen laburpena. Langile

bakoitzari buruz honako datu hauek adieraziko dira:



- Proiektu-taldean beteko duen papera
- Curriculum vitae. Bertan adieraziko dira eskatutako ezagutza teknikoak eta esperientzia, parte hartu duen proiektuak, horietako bakoitzean betetako lana, baliatutako ezagutzak eta lan horretan emandako denbora

## 2- Esperientzia eta egiaztagiria:

- Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusiak.  
Bertan honako datu hauek eman behar dira: zein talde aritu zen / zenbatekoa / Onuradunak.
- Kalitate-bermeen ziurtagiriak eta informazioa

IZENPEk enpresa esleipendunari, kontratatutako zerbitzuak eskaintzeko izendatutako edozein pertsona ordezkatzera eskatu ahal izango dio, hala egitea gomendatzen duten egoerak ematean, edo pertsona hori betetzen ari den postuan eta egiten ari den lanetan moldatzen ez delako.

## **3- Ahalmen Ekonomiko Finantzariora:**

- Finantza-erakundearen txostena.
- Arrisku profesionalen ondorioz kalte-ordain aseguru bat izenpetu badu, aseguru horren aitortzea eta datuak eranstea.

## **2. GUTUNAZALA**

### **6.5. PROPOSAMEN EKONOMIKOA:**

Aurkeztutako eskaintza bakoitzeko proposamen bakarra jasoko da, enpresa ordezkatzeko duen pertsonak edo eskaintzaileak sinatua eta I. Eranskinean agertzen den eredu jarraituta idatzia.

Eskaintako prezioan kontzeptu guztiak sartu behar dira, baita Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), eragiketa zergapetu dezakeen beste edozein gastu edo zerga, joan-etorrien gastuak, dietak, mantentzea eta antzekoak, eta kontratistaren industria-etekina ere.

## **3. GUTUNAZALA**

### **6.6. ESKAINTZA TEKNIKOA: Esleitzeko irizpide objektiboak eta lehiaketako beste hainbat alderdi garrantzitsuri lotutako dokumentazioa:**

- 6.6.1.** Lanen programa, agiri honetako III. eranskinaren arabera.



**6.6.1.1.** Lan-programak, preskripzio teknikoen agirian barne hartutako funtsezko preskripzio teknikoak betetzeari buruzko justifikazioa jaso beharko du eta, gutxienez, jarduerak/denborak diagrametan adierazitako honako datu hauek jaso beharko ditu:

- a) Zerbitzua edo prestazioaosatzen duten lanak finkatzea eta, hala badagokio, lan horietako zeregin garrantzitsuenak finkatzea.
- b) Lana eta zerbitzua garatzeko erabili beharreko taldea eta baliabideak zehaztea, aholkulariaren ordezkaria edo arduraduna adierazita.
- c) Lanak egiteko zatiko epeak egutegi-denboralditan kalkulatzeko. Helburu horretarako, denbora-unitate gisa astea eta hilabetea erabiliko dira, preskripzio teknikoen agirian kontrakoa adierazten ez bada.

**6.7. Dokumentazioa aurkezteari buruzko ohar komunak:**

**6.7.1.** Eskaintzaileak, exijitutako dokumentazioa orijinalean edo legezkotutako kopia aurkeztu ahal izango du. Esleipendunak, esleitutako egunetik hasi eta hilabeteko epean, notarioak kautotutako kopiak edo jatorrizkoak erakutsi beharko ditu.

**6.7.2.** Gainerako enpresa atzeritarrek bezala, Europar Batasuneko Estatu Kideetako enpresa ez espainiarrek aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, Agiri honen II. eranskinean xedatutakoari jarraituko zaio.

**6.7.3.** Esleipenaren hurrengo hiru hilabeteko epea igarota, lehiatzaileek ekarritako dokumentazioa jasotzen ez badute, IZENPEk dokumentazio hori botatzea erabaki dezake.

**6.8.** IZENPEk, esleipena baino lehen nahiz ondoren –baita kontratuak irauten duen bitartean ere–, eskaintzen barne hartutako dokumentuen edukia benetakoa ote den egiaztatu ahal izango du.

Enpresak aurkeztutako datuak eta egoerak faltsuak aurkeztea, kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daitekeela uler daiteke, kontratistari egotz dakioken hutsegiteak eman direlako. Era horretan eratutako behin betiko bermea galduko du edo eragindako kalteen ondoriozko kalte-ordainak ordaindu beharko ditu.

**III.- PROPOSAMENEN AZTERKETA ETA ESLEIPENA**

**7. DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA, ZUZENDU DAITEZKEEN AKATSAK ETA AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN AZTERKETA**



- 7.1. IZENPEk, aldez aurretik, kontratatzeko ahalmena, kaudimen tekniko eta profesionala, eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa aztertuko ditu. Zati horren edukia balioztatuta, eta maila legalean zein maila teknikoan kaudimen eta jarduteko ahalmenerako gutxienerako irizpideak gainditu behar dituzte, gutunazalaren proposamen ekonomiko aztertuko dute. Preskripzio teknikoaren agirian deskribatutako maximoa gainditzen badute (muga maximo mugatua duten aurrekontuen kasua) eskaintza ez da onartuko. IZENPEk, adierazitako denboran eta moduan sailkatuko ditu eskaintzaileek aurkeztutako dokumentuak. Ondoren, eskaintza teknikoak aztertuko dituzte.
- 7.2. Aurkeztutako dokumentazioan, zuzendu daitezkeen akatsak edo aipatu gabeko zerbait antzematen badu, interesdunei jakinaraziko die. Argibideak, gainerako eskaintzaileengan eragin badezake, aipatutako zirkunstantziak ezagutzera eman beharko dira, eta eskaintzaileek hiru laneguneko epea izango dute IZENPEren aurrean akatsa zuzentzeko edo konpontzeko.
- 7.3. IZENPEk eskaintzaileei, onartu diren edo onartu ez diren proposamenak jakinaraziko dizkie eta, parte-hartzaileek hala eskatzen badute, atzera bota izanaren arrazoen berri emango die hauei.
- 7.4. Ez dira honako akats hauek dituzten proposamenak onartuko:
  - IZENPEren iritziz eskaintza kontuan hartzeko funtsezkoak diren datuak argi ezagutzea eragozten duten urratzeak, akatsak, omisioak edo kontraesanak dituztenak.
  - Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat etortzen ez direnak.
  - Eskaintzako oinarriko aurrekontua gainditzen dutenak, preskripzio teknikoaren agirian hala adieraziko balitz.
  - Eskaintzaileak, bideraezina egingo duen sendotasunik ez dutela edo akatsik ez dutela onartzen dituenak.

IZENPEk, bere proposamena egin aurretik, kontratazioa esleitzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

## **8. KONTRATUAREN ESLEIPENA**

### **8.1. Kontratuaren esleipena:**

- 8.1.1. IZENPEk, proposamen egokienari kontratua esleitzeko ahalmena izango du, irizpideak eta hauei esleitzen zaientzat aplikatuta, edo prozedura jabegeben aitortu dezake. Edozein kasutan, esleipen-irizpideak kontuan hartuta erabakitzea eragingo du.
- 8.1.2. Kontratua beti zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituela egiaztatzen duen agiria aurkeztu duen kontratista bati esleituko zaio.

## **IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

### **9. KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK**



Esleipendun gertatuko den eskaintzari, elektronikoki izenpetutako emaitzaren berri emango zaio, jaso izanaren adierazpena duen posta elektronikoz bidez. Kontratistak, 15 laneguneko epean, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Iragarki ofizialen zenbatekoa ordaindu izanaren frogagiria, kontuan izanda Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian kontratuen iragarpenak behin bakarrik argitaratzea kontratuaren esleipendunaren kontura baino ez direla izango.
2. Fotokopia soil bidez entregatu dituen dokumentuen kasuan, jatorrizko dokumentuak edo legezkotutako kopiak eta/edo kopia konpultsatuak aurkeztuko ditu. Halaber, IZENPERi beharrezkoa iruditzen bazaio, dokumentazio gehiago aurkezteko eskatuko zaio.

## **10. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

- 10.1.** Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, adierazitako epean kontratua formalizatu ezingo balitz, IZENPEk kontratu hori ezeztatzea erabaki ahal izango du, interesdunari jakinarazi eta entzun ondoren. Kasu horretan bidezkoa izango da behin-behineko bermea konfiskatzea, halakorik balego, eta sortarazitako kalte-galerak ordaintzea.
- 10.2.** Kontratua ezeztatu ondoren, kontratu hori, eskaintzen puntuaketaren ordenan aurrekoaren ondoren geratutako eskaintzaileari edo eskaintzaileei esleitu ahal izango zaie, esleipendun berria ados badago.

## **V. KONTRATUA GAUZATZEA**

### **11. GAUZATZEA ZUZENDU ETA IKUSKATZEA**

- 11.1.** IZENPEko Proiektu Burua, titulazio egokia eta nahikoa izanda, hitzartutako zerbitzua behar bezala eskaintzen dela (Proiektuen arduraduna) egiaztatu, koordinatu eta zaintzeaz arduratuko da zuzenean. Bere lana betetzeko, bere agindutara egongo diren laguntzaileak izan ditzake. Laguntzaile horiek lana, euren titulu profesionalen edo ezagutzen arabera egingo dute.
- 11.2.** Izendatutako Proiektu Buruaren izena, kontratua formalizatzen denetik hasita 15 egun naturaleko epean jakinaraziko dio IZENPEk kontratistari. Baten edo bestearen aldatetak aldeei idatziz jakinaraziko zaizkie.

### **12. LANEN HASIERA**

Lanak hasteko data ofiziala, kontratua formalizatzen den biharamunekoa izango da.



### **13. ARAU OROKORRAK**

- 13.1.** Kontratua, preskripzio teknikoen agiriari, lanen programari eta agiri honetan zehaztutakoari zorrotz lotuta egingo da, eta beti, zehaztapen horiek gauzatzen edo interpretatzen, IZENPEko proiektu-buruak kontratistari emango lizkiokeen aginduak jarraituta.
- 13.2.** Kontratista, zerbitzua edo prestazioa egiteko, kontratuan hitzartutako epeetan hura behar bezala bete ahal izateko beharrezko taldea eta baliabide osagarriak jartzera behartuta dago.  
IZENPEk, egokia iruditzen ez zaion edozein elementu atzera bota ahal izango du. Halaber, Proiektu Buruak idatziz jakinarazten duen dataren biharamunetik hasita hamar egun naturaleko epean, kontratistak, erabaki hori erreklamatzeko eskubidea izango du.
- 13.3.** Horri dagokionez, enpresa esleipendunak bere betebeharreari aurre egiteko beharrezko langileak kontratatu beharko ditu. Aipatutako langileak esleipendunaren mende baino ez dira egongo, beraz, honek patroiz gisa berez dagozkion eskubideak eta betebeharrak izango ditu eta lanaren alorrean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, bere kargura dituen langileen laneko arriskuaren prebentzioari eta laneko gaiei dagokienez.
- 13.4.** Esleipendunak, Agiri honetan aipatutako lanak egiteko, bere eskaintzan adierazitako teknikari adituak izendatzeko obligazioa izango du, bertan zehaztutako arduraldiarekin. Horrenbestez, kontratua indarrean den bitartean, arduraldi nagusi gisa bertara esleitutako langileek, IZENPEren eskaerari erantzun diote, gehienez 24 lanorduko epean. Halaber, esleipendunak ezingo ditu bere eskaintzan ezarritako langile profesionalak ordezkatu, Proiektu Buruak espresuki baimentzen ez badu.
- 13.5.** Egindako lanak, edozein fasetan, IZENPEren jabetzakoak izango dira eta, ondorioz, horrek zerbitzuetako zati bat ematea eskatu ahal izango du edozein unetan, behin-betiko lantze-programarekin bat badator eta lanaren garapena oztopatzen ez badu betiere.
- 13.6.** Kontratua behar bezala gauzatzeko egindako lan guztiak konfidentzialak izango dira eta esleipendunak ezin izango du kontratatutako lanei buruzko inolako daturik beretzat erabili edota hirugarrenengoei eman IZENPEren idatzizko baimenik gabe. Beraz, eskura dituen baliabide guztiak jartzera behartuta egongo da, informazioaren nahiz egindako lanetatik ateratako emaitzen izaera konfidentziala eta ezkutukoa gordetzeko.  
Aipatutako lanetatik erator daitezkeen jabetza intelektualari eta "copyright"ari buruzko eskubide guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko IZENPEren jabetza eskusibokoak izango dira. Hala, aldeak bidezko dokumentua ematera behartuta egongo dira, hura beharrezkoa denean, aipatutako alderdia Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz Espainiako Estatuko Administrazio Nagusiko edozein Organismo edo erregistroaren aurrean behar bezala jasoarazteko.



Nolanahi ere, aipatutako betebeharra ez betetzetik eratortzen diren kalte-ordainen erantzule izango da kontratista.

- 13.7.** Hitzartutako gauzatzearekin lotuta, IZENPEk onartutako edozein motatako arau, agiri, agindu edo kontratuaren eranskinak diren dokumentuak, edo kontratu beraren edozein arlo ez ezagutzeak, kontratista ez du arlo hori betetzeko obligaziotik salbuetsiko.

#### **14. KONTRATISTARI ORDAINTZEA**

- 14.1.** Kontratatistak benetan gauzatzen dituen lanen zenbatekoa jasotzeko eskubidea du, aurretik adostutako prezioen arabera, eta emandako kontratuari, bertan onartu diren aldaketei eta IZENPEk idatziz emandako aginduei lotuta.

#### **15. KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK**

- 15.1.** Kontratatistak, laneko, Gizarte Segurantzako eta laneko arriskuen prebentzioko gaietan indarrean dauden xedapenak betetzeko obligazioa du.

Kontuan izan behar da:

- Langileen bizitzan, segurtasunean eta osasunean eragina izan dezaketen arriskuak behar bezala prebenitzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko dituela.
  - Gainera, lanaren jardunean langileek edozein istripu edo kalte badute, esleipendunak, bere erantzukizunpean, indarrean dauden arauak beteko ditu eta IZENPE aipatutako erantzukizunetik erabat salbuetsita egongo da.
- 15.2.** Kontratatistak IZENPEko Proiektu Buruari, kontratatutako eta aurreikusitako lanen egoeraren berri emateko obligazioa du hilero egindako txostenen bitartez.
- 15.3.** Kontratatista, garatzen dituen lanen eta egindako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da. Horrez gain, kontratua betetzean sortutako ahazte, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrak direla-eta, IZENPEn edo hirugarrengoen sorrarazitako ondorioen erantzukizuna ere izango du.
- 15.4.** Hirugarrengoei sorrarazitako kalteak ordaintzea esleipendunaren kontura izango da, kode zibileko 1.902. artikuluan eta HSKLren 198. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- 15.5.** Erakunde ofizial edo partikularretako lizentziak, dokumentuak edota edozein informazio lortzeko behar diren gastuak kontratatistaren kontura izango dira. Halaber, indarrean dauden xedapenen arabera aplikatzekoak suertatzen diren zerga, eskubide, tasa edo konpentsazio nahiz gainerako karga edo gastuak ere kontratatistaren kontura izango dira, aipatutako xedapenek adierazten duten moduan eta zenbatekoan.



- 15.6.** Kontratatari dagokio zerbitzuei ekiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak lortzea, bai ofizialak bai partikularrak.
- 15.7.** Kontratatariak IZENPEren esku jarriko ditu kontratuaren xedea behar bezala garatu eta betetzeko horrek beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzu profesional guztiak, hala nola, azalpen-bileretara bertaratzea, informazio puntuala ematea, instalazioak bisitatzea, eta abar.
- 15.8.** Esleipendunak, kontratua gauzatzeko epea eta kontratu horretan bertan zehaztutako tarteko epeak betetzeko obligazioa du. Guztizko epea edo zatika betetzeko epeak amaitzean kontratista bere erruagatik atzeratzen bada, IZENPEk kontratua ezeztatu dezake edo zigor ekonomikoak jar ditzake.

## **16. LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGINAK**

- 16.1.** Finkatutako berme-epea amaitu arte, kontratatariak, kontratatutako lanak behar bezala egiteko eta lan horietan egon litezkeen akatsen aurrean erantzukizuna izango du. Halaber, aipatutako lanak egiten diren bitartean IZENPEk lan horiek aztertu izanak edota egiaztapen, balorazio edo ziurtapen partzialetan onartu izanak ez du kontratista, aipatutako erantzukizunetik salbuetsiko eta ez dio inolako eskubiderik emango.
- 16.2.** Kontratista edozein erantzukizunetik salbuetsia geratuko da, egindako lan okerra edo gaizki egindakoa, IZENPEren agindu baten berehalako ondorio zuzena denean.
- 16.3.** IZENPEren iritziz kontratuaren preskripzio teknikoak bete ez badira, HAKLEOren 203. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta eskainitako zerbitzuak onartzeko behar dituen baldintzak betetzen ez baditu, HAKLEOren 204. artikuluan eta Agiri honetako 20. eta 23. klausuletan xedatutakoa beteko da.

## **17. KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATUA**

- 17.1.** Aldez aurretik IZENPEren baimen espresu eta idatzirik gabe, esleipendunak ezingo die hirugarrenei kontratu honen ondoriozko obligazioak edo eskubideak laga edo eskualdatu. Lagapena gauzatzeko, IZENPEK, uztearen hartzailea edo azpikontratutakoa onartu beharko du.

Horri dagokionez, esleipendunak, uztearen hartzailearekin edo azpikontratatuarekin egindako kontratuan, azken honek, bi aldeak lotzen dituen kontratu-dokumentazioan jasotako baldintza guztiak bete behar dituela ezarriko du espresuki.

Uztearen hartzaileak edo azpikontratatuak zerbitzu horiek, esleipendunarentzako ezarritako baldintza berberetan eskaini beharko ditu.

IZENPEren aurrean esleipenduna izango da osorik esleitutako zerbitzuak eskaintzeko erantzule bakarra, honek bere hornitzaileei edo azpikontratatuari exijitu ahal izango dizkien erantzukizunak kontuan hartu gabe.



**17.2.** Kontratatik, orokorrean, honako alderdi hauek frogatzeko obligazioa izango du:

- Hitzarmen bidez, kontratua partzialki betetzeko eta azpikontratazioaren xede izango diren kontratuaren zatiak betetzeko kontratatuko dituen azpikontratatik egiaztatuh beharko ditu.
- Agiri honen espezifikazioen arabera, kontratatik jarduteko gaitasunerako duen obligazioa betetzen dela frogatuko du.
- HSKLren 49. artikuluko kasuetakoren batean jasotako antolamendu juridikoari jarraiki kontratatzeo ezgaitutako pertsonak azpikontratatzeo debekuari buruzko baldintza betetzen dela.

**17.3.** Aipatutako alderdiak, ondoko dokumentu hauek aurkeztuta egiaztatuko ditu esleipendunak :

- a) Azpikontratazioa formalizatu aurretiko idatzizko jakinarazpena. Bertan, kontratua partzialki betetzeko hartu dituen azpikontratatisten zerrenda eta azpikontratazioaren xede izango diren kontratuaren zatiak jasoko ditu.
- b) Azpikontratatistei dagokienean, honako egiaztapen hauek aurkeztuh beharko dituzte:
  1. HSKLren 49. artikuluan ezarritako kontratatzeo debekuetan azpikontratatik ez daudela adierazten duen ziurtagiria.
  2. Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharreri dagokienez, azpikontratatik egiaztatuko du egunean dagoela (HAKLEOren 15. artikuluan jasotzen den irismenean eta forman), xede horretarako egindako egiaztapen administratibo baten edo batzuen bidez. Egiaztapen horiek luzatu behar dituzte dagozkien Ogasunak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzak. Eta Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergari dagokionez, alta eta, behar bada, azkeneko ordainagiria aurkeztuh behar ditu. Horrekin batera, Zerga horren matrikulan baja eman ez duela adierazten duen aitopen arduratsua aurkeztuh beharko du.
  3. Kontratatisten Erregistro Ofizialari buruzko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen duen Kontratatisten Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden azpikontratatistek, kontratatzeo ahalmena egiaztatzeo prozedura baten bitartez, indarrean dagoen ziurtagiriaren kopia – Erregistroaren abokatu arduradunak luzatua– baino ez dute aurkeztuh beharko. Era horretan, aurreko 1) eta 2) puntuetan adierazten diren dokumentuak eta egoerak aurkeztuh eta egiaztatuh behar izatetik salbuetsita egongo dira.

**17.4.** Esleipendunak 18.3 klausulan aipatzen diren dokumentuak IZENPEn aurkeztuko ditu, azpikontratazioa formalizatu behar den data baino hamabost egun natural lehenago, gutxienez. Esleipendunak aipatutako betebeharra edo ezarritako baldintzak beteko ez balitu, ezingo da azpikontratazio hori egin.



## **18. KONTRATUA ALDATU ETA ETETEA**

**18.1.** Gai honetan, HSKLren 202. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

**18.2.** Kontratuaren gaian aldaketarik sartu behar bada, Proiektu Buruak idatziko du proposamena, eta berau justifikatzen, deskribatzen eta baloratzen duten dokumentuak erantsiko ditu. IZENPEk aldaketa onartu aurretik, kontratistari entzun beharko zaio.

**18.3.** IZENPEk kontratuaren gaian aldaketak egitea erabakitzen duenean, ezinezkoa baldin bada lanaren zati batzuk egiten jarraitzea, kontratua aldi baterako eten beharko da, guztiz edo parte batean, dagokionaren arabera. Kontratuko aurrekontua aldatzen bada, kontratua betetzeko epea edo kontratuaren iraupena horren proportzio berebean aldatu beharko da, kasu berezietan izan ezik. Kasu bereziok behar bezala justifikatu beharko dira, eta kontratistak hala eskatuta, eta Proiektu Buruak aldeko iritzia ematen badu, epea gehiago luzatu ahal izango da.

**18.4.** Kontratistak eta Proiektu Buruak ezingo dute behar bezala onartu ez den aldaketarik sartu edo gauzatu. IZENPEk behar bezala baimendu ez dituen kontratuaren helburuaren aldaketek, esleipendunaren erantzukizuna ekarriko dute. Esleipenduna behartuta egongo da, kontratuan aldatu dituen zatiak berregitera.

**18.5.** Kontratuaren aldaketak idatziz formalizatu beharko dira eta espedienteari erantsi beharko zaizkio.

## **VI. KONTRATUA AMAITZEA**

### **19. LANAK AMAITU ETA LAN HORIEK JASOTZEA**

**19.1.** Lanak amaituta eta, hala badagokio, kontratistaren gainerako zerbitzu osagarriak beteta, IZENPEko Proiektu Buruak IZENPEko Proiektu Arduradunari erlazioa amaitu dela jakinaraziko dio, eta kontratuaren helburu izan diren lan guztiak entregatuko dizkio.

**19.2.** Lanak edo zerbitzuak Proiektu Buruak aztertu eta egiaztatuko ditu. Kontratuaren baldintza teknikoak bete direla erabakitzen badu, lanak jasotzeko proposatuko du. Kontratistak kontratua bete duela ulertuko da, kontratistak, kontratuaren baldintzak eta IZENPEren onarpenarekin, kontratuaren helburu guztiak betetzen dituenean.

**19.3.** Kontratuaren preskripzio teknikoak bete ez direla uste badute, Proiektu Buruak, idatziz, agindu zehatzak eta zehaztuak jasoko ditu, antzemandako hutsegiteak edo akatsak zuzendu ahal izateko. Halaber, idatzian bertan zuzenketa horiek egiteko epea eta egokiak iruditzen zaizkion oharrak adieraziko ditu.

**19.4.** Proiektu Buruak egindako oharren inguruan kontratistak erreklamazioa egiten badu, erreklamazio hori, bere txostenarekin batera, IZENPEko Proiektu Buruari



igorriko zaio. IZENPEko Proiektu Buruak erantzuna emango du, IZENPEko legehaholkulariak aztertu ondoren.

- 19.5.** Kontratatik, Proiektu Buruaren oharren aurkako erreklamazioa idatziz egiten ez badu, egindako oharren onartzen dituela, eta antzemandako akatsak zuzendu edo konpontzeko behartua dagoela ulertuko da.
- 19.6.** Kontratatari akatsak konpontzeko emandako epean akats horiek konponduta ez badaude, kontratua ezeztatu ahal izango da, eta kontratatik, eragindako kalteen ondorioz IZENPEri kalte-ordainak emateko obligazioa izango du.  
Dena den, kontratatari egoki dakizkiokeen akatsen ondorioz egindako lanak kontratatutako zerbitzuarekin ez badatoz bat, IZENPEk lanak atzera bota ahal izango ditu, eta ordaintzeaz salbuetsia geratuko da edo, hala badagokio, ordaindutako dirua berreskuratzeko eskubidea izango du.
- 19.7.** Aurreko izapidetzeak bete ondoren, zerbitzuak behar diren baldintzak betetzen dituela uste bada, kontratua jaso egingo da. Kontratua, Agiri honetako azaleko 22. puntuan ezarritako gehieneko epearen barne jasoko da. Epe hori, kontratuaren helburua egin edo entregatzeko datan hasiko da.
- 19.8.** Berme-epea amaituta IZENPEk eragozpenik edo salaketarik formalizatu ez badu, kontratatik, egindako lanekin lotutako edozein erantzukizunetik salbuetsia geratuko da.

## **20. KONTRATUA DEUSEZTATZEA**

- 20.1.** Kontratua deuseztatzeko eta indargabetzeko arrazoiak dira, HSKLren 206. artikuluan eta Kode Zibilaren 1.290. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoez gain.

## **VII BERMEA, ISILPEKOTASUNA ETA DATUAK BABESTEA**

### **21. BERMEA ETA ISILPEKOTASUNA**

Definitutako helburuarekin lotuta, kontratatik, IZENPE jabe den isilpeko informazioa eskuratzeko aukera izango du.

Informazio hori isilpean mantentzeko helburuarekin, kontratatik, ondoren adostutako hitzarmenak betetzeko konpromisoa hartzen du.

1. Eskura izango duen IZENPEk tratatu edo jasotako informazio osoa ahalik eta sekretutasun handienarekin gordetzeko konpromisoa hartzen du. Kontratatik informazio hori konfidentzial gisa tratatuko du edozein ondoriotarako.
2. Eskura dezakeen informazio hori ez die hirugarrengei emango, ez eta informazio hori gordetzeko ere. Espezifikoki, hornitzaile, bezero edo hirugarrengei ez die lanak egiten ari diren bitartean kontratatik ezagutu dezakeen edozein motatako informazio emango, baldin eta ez dagoen alde aurreko baimen idatzia.



3. Isilpeko izaerak, kontratu honen ondoriozko informazioarekin lotuta, aldeek emandako ahozko edo idatzizko edozein komunikazio edo txostenetarako balioko du, eta ezingo zaie hirugarrenei erakutsi, banatu, edo publikoki aipatu IZENPEk aldez aurretik baimentzen ez badu.
4. IZENPEk eman edo eskainiko dion edo kontratistak berak eskuratu ahal izango duen informazioaren segurtasuna (osotasuna, erabilgarritasuna eta isilpekotasuna) bermatzeko beharrezko neurri tekniko eta antolakuntzari lotutako guztiak etengabe mantenduko ditu. Era horretan, IZENPEk kasu bakoitzean eskatutako lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskaerak gauzatzean informazioa aldatu, galdu, tratatu edo baimenik gabe eskuratzea ekidingo du.
5. Langileek egindako jarduerak, kontratu hau betetzeko behar ziren zereginetara baino ez direla mugatuko bermatzen du. Halaber, bere langile, laguntzaile eta/edo azpikontratistei, kontratu honetan ezarritako obligazioen berri emango die, bai eta eskura dezakeen informazioaren tratamenduaren inguruko obligazioen berri ere. Espezifikoki, beharrezko ohartarazpenak egingo ditu eta bertako langile, laguntzaile eta azpikontratistekin beharrezkoak izango diren dokumentuak izenpetuko ditu, obligazio horiek beteko dituztela ziurtatzeko.
6. IZENPEko informazio-tratamenduan zehar, kontratatutako eskaerak, zerbitzuak, proiektuak eta/edo lanak egiteko beharrezkoa den kasutan baino ez duela informazioa erabiliko aitortu eta onartzen du. Informazio hori eskuratu eta tratatzean, IZENPEk ezarritako politika, arau eta prozedura guztiak errespetatuko ditu, kontratistak bere aldetik ezarritako politika, arau eta prozedura guztiak baztertu gabe. Azken horiek ere derrigorrez bete beharko dira segurtasun-maila handitzea ekartzen badute. Gatazkak egonez gero, IZENPEk ezarritako politika, arau eta prozedurak jarraituko dira.
7. Kasu bakoitzean agindu zaizkion lanak, proiektuak, zerbitzuak eta eskaerak egiten amaitu ondoren, edozein formatutan jasotako informazio guztia IZENPERi itzuliko dio edo desegingo du. Ezingo du informazio horren edo agindutako eskaerak, zerbitzuak, proiektuak eta lanak gauzatzeko sortu izan diren gainerako informazioen kopia, osorik edo zati batean, gorde.
8. Isilpekotasun eta sekretu profesionaleko betebeharrak, agindutako lanak egiten amaitu ondoren eta, hala badagokio, kontratu hau edozein arrazoiengatik amaitu ondoren iraungo duela bermatzen du. Isilpekotasun-obligazio horrek iraupen mugagabea du.

## **22. DATUAK BABESTEA**

1. IZENPEk agindutako lanak, zerbitzuak eta eskaerak kontratistak gauzatzeko, honi datu pertsonalak dituzten fitxategiak eman edo eskaini behar zaizkio. Datu pertsonal gisa hartuko dira Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (aurrerantzean DBLO) xedatutakoak barne hartutako guztiak, eta IZENPEko industria, merkataritza eta zerbitzuetako jarduerarekin lotutako datu, fitxategi edo programa guztiak.



2. Aurreko idatz-zatian adierazitakoa kontuan izanda eta DBLOren 12. artikuluan eta ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak (aurrerantzean Araudia) onartutako Datu Pertsonalak biltzen dituzten Fitxategi Automatizatuaren Segurtasun Neurrien Araudiko 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, kontratistak, datu pertsonalak dituzten eta berak jaso ditzakeen, edo IZENPEk agindutako edozein lan edo zerbitzu egiteko eskura ditzakeen fitxategiei dagokien segurtasun-maila bermatu eta mantentzeko konpromisoa hartzen du.
3. DBLO bete ahal izateko, kontratistak adierazi du eta bermatu du bere antolakuntzan, indarrean dagoen Erregelamenduan xedatutakoaren arabera segurtasunari dagokion araudia duela eta martxan duela. Segurtasuneko araudi horrek behar bezala zehaztuta ditu, bertako baliabide eta informazio-sistemetan eta datu pertsonalak dituzten edo izan ditzaketen fitxategietan sar daitezkeen pertsonak identifikatu eta egiaztatzeko mekanismo egokiak. Era berean, segurtasuneko araudi horrek, datu pertsonalak egon daitezkeen euskarrien kontrol-prozedurak, eta errepikatutako datu pertsonalen segurtasunean eragin dezaketen gertakariak kontrolatzeko prozedurak ere ezarri ditu.

Bi aldeek, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/99 Legean eta gainerako araudi osagarrian ezarritako terminoak betez, datu pertsonalak erabili, tratatu eta lagatzeko dituzten eskubideak eta obligazioak ikusteko konpromisoa hartzen dute. Halaber, alde bakoitzak, adostutakoa ez betetzeak eragin diezaiekeen erantzukizunak bere gain hartzen ditu.

## **VIII. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Aldeen artean sor daitezkeen gatazketan, aldeek, eskuduntza duen jurisdikzioan, Vitoria-Gasteizko Epaitegi eta Auzitegiek adierazitakoa onartuko dute.



## I. ERANSKINA

### PROPOSAMEN EKONOMIKOKO EREDUA:

IZEN

DEITURAK:

.....  
Helbidea: .....kalea..... NAN  
zk..... norberaren izenean edo honako enpresa hau  
ordezkatuz: ....., IFK:  
....., helbidea: ..... kalea  
.....PK:.....Tel:.....  
.....

### AITORTZEN DUT

- I. "TPE Osakidetza banatzeko bulego tekniko" baten zerbitzuak kontratatzea helburu duen kontratua esleitzeko eskaintza-iragarkiaren berri izan dudala.
- II. Era berean, Oinarri Teknikoen Agiria, Baldintza Zehatzen Agiria eta kontratu hau arautu behar duen gainerako dokumentazioa ere ezagutzen ditudala, eta modu espresean nire gain hartzen ditudala eta ontzat ematen.
- III. Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela indarreko arauak eskatzen dituzten baldintza eta betebeharrak guztiak enpresa ireki, instalatu eta funtzionamenduan egoteko.
- IV. Eskaintza honen prestazioari dagokionez, berori betetzeko ondoko zenbateko indibiduala proposatzen dudala:  
.....  
.....  
....."  
euro,.....  
.....  
.....egiteko. Eskaintako prezioan kontzeptu guztiak azalduko dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa, eta eragiketa zergapetu dezakeen beste edozein zerga edo gastu, joan-etorrien gastuak, eta kontratistaren industria-etekina barne direla.

....., 2008ko .....aren .....a.

Sin.:

NAN:



## **II. ERANSKINA**

### **ATZERRIKO ENPRESEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatuetaoak diren enpresek, HSKLren Lehen Xedapen Gehigarriaren arabera, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

1. Enpresek jarduteko ahalmena dutela egiaztatuko dute Erregistro profesional edo komertzialen batean inskribatuta, baldintza hori dagokion estatuko legeriak exijitzen duenean, edo HAKLEOren I. Eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztuta.
2. Lehiatzaileak bere izenean jarduten ez duenean edota pertsona juridikoa denean, ofizialki itzuli beharko den ahalmena aurkeztu beharko du.
3. Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegiren eskumenaren mende jartzearen aitortpena, kontratutik zuzenean edo zeharka erator daitekeen gorabehera orotarako, lehiatzaileari egokitu dakiokkeen atzerriko eskumen-foruari uko eginda, hala badagokio.
4. HSKLren 49. artikuluan zerrendatzen diren kontratatzeke debekuetan barne hartuta ez egotearen ziurtagiria.  
Aipatutako ziurtagiria, kasuak kasu, testigantza judizialaren edo egiaztigiri administratiboaren bidez egin ahal izango da, eta agintaritzak eskudunak aipatutako dokumenturik luzatu ezin duenean, agintaritzak administratibo baten, notario publiko baten edo erakunde profesional kualifikatuaren aurrean emandako aitortpen erantzulearekin ordezkatu ahal izango da. Aipatutako aukera dagokion estatuko legerian aurreikusten denean, agintaritzak judizialean emandako aitortpen erantzulearekin ere ordezkatu ahal izango da.
5. Kide den Estatuako agintaritzak eskudunak luzatutako egiaztigiria, ofizialki itzulia, ahalorde esleitzaleari buruzko Estatuaren legezko xedapenen arabera, zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeari buruzko betebeharretan enpresa arauzko egoeran dagoela ziurtatuko duena.
6. Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrentzako sailkapena exijituz gero, nahikoa izango da IZENPEko Kontratazio Organoan enpresaren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzea, HSKLren 51. artikuluan eta ondorengoetan adierazitakoa jarraituta.

Europar Batasuneko Estatu kideek euren enpresaburuen alde luzatutako sailkapen-egiaztigiriek edo antzeko dokumentuek kontratazio-organo desberdinen aurrean ahalmen-ustekizuna osatzen dute HSKLren 49. artikuluari dagozkion idatz-zatiei dagokienez.

7. Europako Batasuneko kide ez diren estatuetao enpresa atzeritarrek, aurreko ataletan azaldutako baldintzez gain, ondoko hau egiaztatu beharko dute:
  - a) Enpresak helbidea duten tokiko Espainiako Kontsul Bulegoak edo Misio Diplomatiko iraunkorrek egindako txostenaren bitartez jarduteko gaitasuna. Bertan, toki, lanbide, merkataritza edo antzeko erregistroan inskribatuta



egotea edota, halakorik ezean, kontratuaren xedea zabaltzen deneko jarduera-eremuko toki-trafikoan jardun ohi izatea jasoko den moduan, Europako Espazio Ekonomikoari buruzko erabakia sinatu duten estatuetako enpresak badira salbu. Kasu horretan, jarduteko ahalmena eranskin honetako 1. puntuan aurreikusitakoari jarraituta egiaztatuko da.

- b) Enpresen jatorrizko Estatuak, Administrazioarekiko kontratazioari dagokionez, Espainiako enpresen partaidetza funtsean modu berdintsuan onartzen duela eta Merkataritzarako Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko erabakia sinatu duela. Alderdi hori dagokion ordezkariak diplomatiko espainiarraren bitartez justifikatuko da.
- c) Dokumentalki, Espainian helbideratutako sukurtsala zabalik duela eta, normalean, bertako ahalduak edo ordezkariak izendatu dituela bere eragiketak egiteko.
- d) Merkataritza Erregistroan inskribatua dagoela, aurreko paragrafoan aipatutako ahalordetzeak bezala.



### **III. ERANSKINA**

#### **PROPOSAMEN TEKNIKOA AURKEZTEKO EREDUA.**

I.- Eskaintzaren aurkezpenean jarraitu beharreko edukien indizea:

A- Denbora-plangintza, zereginak eta epeak zehaztuta.

B- Eskaintza ekonomikoa zehaztuta

C- Mantentzeari dagokion eskaintza ekonomikoa

D- Aholkularitzaren eskaintza ekonomikoa